

G. ARESTI ZENAREN LANAK

Aurreko zenbakian G. Aresti zenak euskaraturiko Dante-ren komedia, «Infernua»-ren lehen zatia argitaratu genuen (guk dakigunez hor bukatzen da Dante-rekikoa), Jokin Zaitegi zenaren paper artean aurkitua, sarrera oharrean aditzera eman genuenez.

Baina paper horietan besterik ere etorri zaigu eta horiek argitaratzeaz arduratuko gara, orainarte egin dugun bezala, gure idazle emankorraren ohoretan eta literaturaren onetan.

Paperok, esan bezala, gaur egun Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordetzen dira eta erakunde horri eskertu beharra dugu *Egan*-en argitaratzeko gure eskuetan jarri dizkigulako.

Oraingo honetan «Hasarre-dantza» eta «Prélude à la musique de la dance» hautatu ditugu elkarren kidekoak direlako. Badirudi «Godalet-Dantza» zeritzanakin baduela jarraipen gisa zer ikusirik. Bestalde, parentesi artean jartzen dituen hitzak lehenago ere erabiliak zituela aditzera eman nahi dugu (ikus, *Obra guziak*, Poemak, I. tomoaren 102. orrialdean). Horiez gainera, hiru bertsoke bi poema ere sartzen ditugu, Olerkiak sailean. Aldizkari honen ondoko zenbakietan emango ditugu beste bi poema luze eta kontakizun bat.

Lanok argitaragabeak direnez, egilea eta bere lana zehatzago ezagutzen lagunduko digute.

Esan beharra dugu Aresti eta bere lanari buruz zerbait gisa azterketak egin nahi dituztenek, besteak beste, aldizkari honetan bildu ditugun lanetara jo beharrean aurkituko direla¹, bereziki azken bolada honetan emanak ditugun hainbat ohar, itzulpen eta zatiren bila. *Obra guziak* (1976) deritzan bi tomoak argitara geroztik *Egan* honetan ikusi bai dute argia honako lan hauek:

1982. urtean:

«Gabriel Aresti: Bere poesien Antologia laburra», hitzazurrez, oharrez eta argitaragabeko zatiz (1-2 zenb., 13-57 orr.).

1983.ean:

Aresti eta Tauer-en arteko harremana», J. M. Satrustegi (1-6 zenb., 23-48 orr.).

V. Paz Andrade-ren itzulpena, *Pranto matricial*, Coruña-n 1975ean argitaratua, baina gure artean ezezaguna, (1-6 zenb., 59-67 orr.).

1985.ean heriotzako hamargarren urteburua betetzean:

(Bere oroitzazko lanen artean ditugu).

«Gabriel Arestiren 200 puntuak», A. Zelaietaren azterlana (1-2 zenb., 41-53 orr.).

1. Gabriel Arestik bizi zelarik *Egan*-en argitaratu zituen lanak ezagutu nahi dituenak, ikus bere *Ipuinak* (1979) deritzan liburuaren hitzaurrean K. Mitxelenak eman zituen berriak, «Gabriel Aresti eta *Egan*», 11-16, orrialdeetan.

F. García Lorca-ren itzulpena, *Seis poemas galegos*, Madrid-en 1974an argitaratua (3-4 zenb., 83-89 orr.).

Adabakiak, J. S. M. (3-4 zenb., 191-192 orr.).

Dante-ren *Infernua*, lehen zatiaren itzulpena (5-6 zenb., 79-84 orr.)².

Eta horien jarraipenez datoz oraingo hauek, irakurgai eta era berean aztergai. Eta, arestian esan bezala, ondoko zenbakietan argitaratuko ditugu beste bi poema luze eta kontakizun bat.

J.S.M.

2. Lan horren bukaeran G. Arestik bere eskuz jari zuen: «Euzkogoan argitaratzeko eskariarekin. Infernuko bigarren kantua, datoren astean bidali izango zaitzu». Ez du inolazko datarik eta ez dugu ezagutzen lan horren jarraipenik (J.S.M.).